

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko trazadura aldatuaren proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen jabeei zitazioa egitea okupazioaren aurreko, okupazioko eta, hala badagokio, elkar hartuta balio justurako aktak egiteko

Abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 842/2010 Erabakiaren bidez, hasierako onepena eman zitzaion “A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko trazadura aldatuaren proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari, eta jendaurrean jarri zen.

Ondoren, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 9ko 345/2013 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “A-625 errepidea 357,30 kilometrotik 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektua, zeina A-625 errepidea 359,650 kilometrotik (Amurrioko ekialdeko saihebiderearen hasiera) 354,22 kilometrora (Bizkaiko muga) egokitzeko trazadura aldatuaren eraikuntza proiektuaren proiektu xehatua baita”; baita proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubide guztien zerrenda ere.

Proiektu hori ekainaren 8ko 250/1999 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorrean jasota dago, 1999-2010 epealdiaren barruan hain zuzen ere. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen hirugarren xedapen gehigarriarekin bat etorritik, proiektuak okupatzeko premia berekin dakarrela ulertzen da eta desjabetzeko espedienteak Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen 52. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituz izapidetu daiteke.

Hortaz, dei egiten zaie honi erantsitako erlazioan ageri diren titularrei, Amurrioko Udalean ager daitezten, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeko kalte-ordainaren kopuruak eskaini dadin.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 12a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

